



## Arautegia

### Krosa 2023

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Atletismo Federazioarekin lankidetzan, **Euskadiko XL. Eskolarteko Kirol Jokoak** antolatuko ditu 2023ko otsailaren 26an Legazpin (Gipuzkoa).

**I. Artikulua.-** Txapelketa honetan Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurralde historikoetako selekzioan dauden infantil mailako kirolariek hartu dezakete parte (2009 eta 2010ean jaiotakoak), hala nola, eskola kiroleko taldeak eta eskola kiroleko kanpainetan inskribatuta dauden elkarteak (3 talde lurralde historiko bakoitzeko, gizonezkoen kategorian nahiz emakumezkoetan).

Partaide guztien eskola lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du ekintzan parte hartu

**II. Artikulua.-** Lurralde-selekzioko talde bakoitzak, gehienez 6 kirolari aurkeztu ahal izango ditu. Bai gizonezkoetan, baita emakumezkoetan ere.

**III. Artikulua.-** Ikastetxe edo elkarte bakoitzeko taldeek, gutxienez 4 eta 6 kirolari aurkeztu beharko ditu, bai gizonezkoen kategorian bai emakumezkoetan ere.

**IV. Artikulua.-** Ikastetxe bakoitzeko taldeek hurrengo araudia bete beharko dute:

- Taldea 6 kirolariz osatuta badago, gutxienez lauk ordezkatzten duten ikastetxeokoak izan beharko dute.
- Taldea 5 kirolariz osatuta badago, gutxienez hiruk ordezkatzten duten ikastetxeokoak izango dira.
- Taldea 4 kirolariz osatuta badago, gutxienez hiruk ordezkatzten duten ikastetxeokoak izan beharko dute.

**V. Artikulua.-** Klubak derrigorrez, bertakoak diren kirolariz osatuta egon behar dira eta beraien lurralde historikoko eskola kiroleko programetan izena emanda egon behar dira.

**VI. Artikulua.-** Taldeen sailkapena, edozein kategoriatan, lasterketa bakoitzetik eta talde bakoitzetik lehenengo lau kirolariak oinarritzat hartuta egingo da, talde bakoitzeko puntuazioa 4 kirolarien sailkapenen batura eginez. Bi talde edo gehiagoren artean berdinketa izan ezker, laugarren kirolariaren sailkapena kontuan hartuko da.



**VII. Artikulua.-** Hurrengo lasterketak ospatuko dira, aurreikusitako gutxi gorabeherako luzera eta ordutegiaz.

<b>Kategoria</b>	<b>Distantzia</b>	<b>Ordua</b>	<b>Epaileen deia</b>	
Infantil mutilak	2.650 m	11.00	Sarrera 10:45	Irteera 10:55
Infantil neskek	2.650 m	11.20	Sarrera 11:05	Irteera 11:15
Sari banaketa		12,30		

**VIII. Artikulua.-** Euskadiko Infantil Mailako Eskolarteko Kros Txapelketarako izen-emateak lurralde ezberdinetako Foru Aldundietako kirol zerbitzuetan egin beharko dira 2023ko otsailaren 16an, arratsaldeko 20:00ak baino lehen. Hauek Euskadiko Atletismo federaziora helarazi, otsailaren 20ean arratsaldeko 14,00ak baino lehen. Frogaren egunean Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoa eta Kirolaren arduradunak baimendu ezean ezingo da aldaketarik egin.

**OHARRA:** Dortsalak froga egunean bertan, otsailak 26an, emango zaizkio zirkuituko idazkaritza nagusian talde edo selekzio arduradunari.

Araudi honetan jasotzen ez diren gaietan hauei jarraituko zaie:

- a. 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziiplina-araubideari buruzkoa
- d. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2023ko otsailaren 6ko AGINDUA, 2023ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XL. edizioaren deialdia egiteko dena
- e. Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendariak, 2023ko otsailaren 10eko EBAZPENA, 2023ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XL. edizioaren epaile bakarria izendatzen dena.
- d. IAFFak duen nazioarteko txapelketen araudia.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkerro, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.



**EUSKADIKO XL. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK**  
XL JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI

